

# Aita Donosti'ren omenez

NAPARRUA'ko Lesaka erriko Agiña mendian monumento bat eitekoan dira Aita Donosti ospatsuaren omenez. Oteiza'ren proyectora da, Donostiko Sociedad de Ciencias Naturales «Aranzadisk» eiten dau eta aurtengo udazkenean izango ei dau benderitu.

José Gonzalo Zulaika Arregi (Kaputxino ein zanian José Antonio de Donostia) baña munduan musicalari moduan esautera etorri zanian Aita Donosti izenez ezautu genduana. Donostian jaio zan 1886'garreneko ilbeltzaren 10'ean. Eta Lekarotz'en (Nabarra) il zan 1956'garreneko dagonillaren 30'ean.

Lekarotz'en estudiatu zeban teología ta gero oso-osorik musikari emondako bititza aingerutar bat iran zan beria. Orixe zan Aita Donosti'ren bixitza. Gañera Euskalerriko ta Euskalerriaren musikari emondako bixitza. Obeto esanda musikaren alde onduan dabilen Euskalerriko folkloreari.

Musika ta musikatraz asko eskribidu zeban, bai euskeraz ta bai erderaz: organu, piano, orkestra, kantu, teatro ta abar. Itzaldi (conferencia) asko emon zituan eta aldizkari edo errebista askotan eskribidu. Zenbait liburu be eskribidu zituan; euren artian azkenengauak: «De Música Vasca», Buenos Aires'en eta «Música y músicos en el País Vasco», Donostian 1951'gerrenian.

Musika kontuan noraño eldu zan jaitzeko naikua dogu bere titulueri begiratzea: Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, The Hispanic Society of América, Consejo de Estudios Vascos de la Sociedad de Musicología de Paris, Sociedad Folklórica de México eta Euskaltzaindi'koan zan, eta titulua orren gañetik Instituto Español de Musicología'ko fundadorietarikua zan.

Preludios Vascos'kin ein eban, Aita Donostik, musicalari aundien artian sa-



1917 urtia. Aita Donosti Eibar'ko «bandia» zuzentzen.  
(Foto Ojanguren).

rrera. Aixe izan zan lelengo azaltzea. Andik lasterrera izan ziran Bilboko itzaldi sonatuak Lo Música popular vasco, Bilbo gurtua zoraturik laga zebana. Izan be Kaputxino arek eukan bixkortasuna; berak berba ta berak musika jo.

Eztakit askok jakingo dabent, baña Bilbo'tik lasterrera, Aita Donostik Eibar'ko bandia be dirijido zebala. Ba 1917'garenian Eibar'en emon ei zeban itzaldi bat; orduan be, berak berba ta berak dirijido bandia. Eibartarrak txalo beruak jo ei zetzezen. Etorri aurrelik, batedonhamuek kontau biar izan zetzen Eibar'en egorrak asko zeuala ta kontuz ibiltzeko; baña Aita Donosti praille jatorrak ezeban eibartarrondako uste txarrik eta Untzago'ko kioskuak irankil asko dirijido eban gure bandia. Bakar-bakarrik, eibartar zelarrezen batek Aita Donosti ikusi zebanian, bere batunia altzatzen, esan ei zeban: Bixar egaldit ona; prailletxuak makillatxua gorutz altzau jok-eta.

Bilbo'ko Diputazioak ipiñi zehan euskal musika errikoia norek geiago batu konkursoan. Bigarrengoa saria irabazi eban. Azkue izan zan lelengo, baña geiago batu zitualako, ba gurtzen iritziz Aita Donostik batutakuak obiak ziran.

Paris eta Londres'era ostara asko eiten zituan Europa'ko musikak sakonki estudiatzeko. Gero amaika musika berri sortu zituan. Noizhait, an edo emen, danok entratzerakoan eldu garan musika ederrak.

Bere azkenengoa Iana Euskaltzaindi'ko (en la Academia de Lengua Vasca) emon zeban konferentzia izan zan: Euskal-erriko Otoitzak, Ilbeltzaren 26'an, 1956'garenian; il zan urtian bertan.

Ondo merezita eukan Aita Donostik oin Lesaka'ko mendian ipintzera dolazen monumento eri.

Juan San Martín

•Euskerak burua jasotzea Jaungoikuak nai dau.

Aita Kardaberaz S. J.

## Iretargian gizonak?

B EIN. Matxin da Txomin'ek, astronomiaz ziarduen berbetan. Biak ziran eskola bakuak, baña buruan falta eben albidadia misian euken; baita gañerka be.

Makina bat izar aotan erabili ondoren, iretargira jo eben. Txomin'ek, iretargian gizonak bizi zirala esan eban. Ta Matxin'ek arrututa:

—Tira-tira, ori buño gizon gelago intzalakuan najeuan. Gizonak zelan egongo ditxuk pa iretargian, oindioak «Sputnik»ean txakurra bialterik be ezin juek aman-ta.

Ik esangoztak neri. An bertako gizonak dagozak, nik liburi batzen irakorri nاجuan, jakintsu bat gañera.

—Bai ete? —erantzun zetzan Matxin'ek barrez-barrez—, ol, ol-ol, asto berinkutsi-ori, sinistu ein dok gañera; zelan biziko dituk ba iretargian gizonak? ze, iretargia gasteatzen danielan noga juaten dituk ba?

## Ezaun bat Madrid'en

B EIN eibartar bat eta planteiar bat Madrid'era Juan ei ziran tratu kontuko hiztegi batera. Ostatuan sartu ziran, bartzartxo batian arpegil ezauneko bat ikusi zeben prantzez antzerako bikin berbetan, eta esan zetzen planteiarak eibartarrari:

—I: ori orragonori eztokpa eibartarra?

—Bai, ori emen interprete dagok.

—Da zer dok or?

—Ba, orrek inglesakintzak ta prantzezakintzak doianian, batak esan zetzen gurtza bestiari kontatzen jetzak.

—Etu orri zelan deitzen detzela esan dok?

—Interprete.

—Ba, guk, Plaentxian, olakueri salkauetetan deitzen jetzau.

MUNETA.